

# IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

## 2019-20 ikasturtea

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA





# AURKIBIDEA

Orrialdea

<a href="#">0.- SARRERA</a> .....	1
<a href="#">1.- INSTITUTUKO HELBURU OROKORRAK</a> .....	1
1.1.- Lehenetasunezko ildoak .....	1
1.2.- Helburuak .....	1
1.3.- Ebaluazio diagnostikoa dela eta sortutako hobekuntza-jarduerak .....	2
1.4.- Helburuen garapenerako proposatutako jardueren plangintza .....	3
<a href="#">2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN PROGRAMA</a> .....	9
<a href="#">2.1.- Zentroaren antolamendua</a> .....	9
2.1.1.- Institutuko ikasle eta taldeak.....	9
2.1.2.- Irakasleria eta tutoretzak .....	9
2.1.3.- Elkargoaren organoak .....	10
2.1.4.- Pertsona bakarreko organoak .....	10
2.1.5.- Irakasleen koordinazioa .....	10
2.1.6.- Ikasle eta irakasleen ordutegiak. Aukerakotasuna. Errefortzuak.....	11
2.1.7.- Ebaluazio datak .....	11
2.1.8.- Familiak .....	12
2.1.9.- Administrazioa eta Zerbitzuak.....	12
2.1.10.- Beste zerbitzu batzuk eta lankidetzak .....	12
<a href="#">2.2.- Programazio didaktikoak</a> .....	12
<a href="#">2.3.- Berariazko programak</a> .....	13
2.3.1.- Irakaskuntzarako ekintzak .....	13
2.3.1.1.- Pedagogia Terapeutikoko Irakasleria .....	13
2.3.1.2.- Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Proiektua .....	13
2.3.1.3.- Ikasle ijitoekiko esku-hartze proiektua .....	13
2.3.1.4.- Enplegurako heziketa jarduera programa .....	13
2.3.2.- Berrikuntza eta Hobekuntza proiektuak.....	13
2.3.2.1.- HAUSPOA Proiektua.....	13
2.3.2.2.- Hizkuntz Normalkuntza .....	14
2.3.2.3.- Elkarbizitza .....	15
2.3.2.4.- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna .....	15
2.3.2.5.- Osasuna, afektibo-sexuala, drogamenpeketasuna.....	15
2.3.2.6.- Patioen animazioa.....	15
2.3.2.7.- Agenda 21 .....	16
2.3.2.8.- IKT .....	16
2.3.2.9.- ERASMUS +Proiektua .....	17

2.3.2.10. STEAM Proiektua .....	18
<a href="#">2.4.- Zentroaren Ebaluazio Plana</a> .....	18
3.- ORIENTAZIO ETA TUTORETZA PLANA .....	18
4.- URTEKO BIZIKIDETZA PLANA .....	19
<a href="#">5.- EKINTZA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN PROGRAMA</a> .....	19
5.1.- Ekintza Osagarriak .....	19
5.1.1.- Ekintza Didaktikoak .....	19
5.1.2.- Jai-Ekintzak .....	19
5.1.3.- Ikasketa eta Elkarbizitzarako Bidaiak .....	19
5.1.4.- Ebakuazio-Simulazioa .....	19
5.1.5.- Dolores Ibarri Ezagutuz .....	19
5.2.- Eskolaz Kanpoko Ekintzak .....	19
5.2.1.- Eskolaz Kanpoko Ekintzak: Eskola kirola eta besteak .....	19
5.2.2.- Euskarazko titulazioa lortzeko ikastaroa .....	20
6.- IRAKASLEENTZAKO FORMAZIO PLANA .....	20
<a href="#">7.- URTEKO KUDEAKETA PROGRAMA</a> .....	20
7.1.- Baliabideen antolakuntza .....	20
7.2.- Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua .....	21
8.- ERANSKINAK	
<a href="#">I. eranskina - DBH 1. kurtsoko irakasleria</a>	
<a href="#">II. eranskina - DBH 2. kurtsoko irakasleria</a>	
<a href="#">III. eranskina - DBH 3. kurtsoko irakasleria</a>	
<a href="#">IV. eranskina - DBH 4. kurtsoko irakasleria</a>	
<a href="#">V. eranskina - Batxilergoko irakasleria</a>	
<a href="#">VI. eranskina - Heziketa Zikloetako irakasleria</a>	
<a href="#">VII. eranskina - Elkargoaren organoak</a>	
<a href="#">VIII. eranskina - Pertsona bakarreko organoak</a>	
<a href="#">IX. eranskina - IGE, Administrazioa eta Zerbitzuak</a>	
<a href="#">X. eranskina - Institutuko ordutegiak</a>	
<a href="#">XI. eranskina - Ebaluazio datak</a>	
<a href="#">XII. eranskina - Orientazio eta Tutoretza Plana</a>	
<a href="#">XIII. eranskina - Urteko Bizikidetza Plana.</a>	
<a href="#">XIV. eranskina - Ekintza osagarrien programa.</a>	
<a href="#">XV. eranskina - Irakasleentzako Formazio Plana.</a>	
<a href="#">XVI. eranskina - Enplegurako heziketa jarduera programa</a>	
<a href="#">XVII. eranskina Urteko Bizikidetza Plana</a>	

## **0.- SARRERA**

DOLORES IBARRURI BHIko Ikastetxearen Urteko Planak (IUP) 2019-2020 ikasturterako Institutua antolatzeko proposamena biltzen du. Bere lantzea ebaluazioko prozesu parte-hartzaitetik abiatzen da, bere onespenez klaustroko eta OOGeko kideen inplikazioa eskatzen du eta bere abiarazteak hezkuntza komunitate guztia inplikatzeko du. IUPk, berez, zentroaren hezkuntza prozesuaren ardatza da: helburuek, giza eta material baliabideen antolakuntzak eta ekintza programazioak zentroa dinamizatzea ahalbidetzen du, baita irakaskuntza prozesuari egonkortasuna eta kohesioa ematea eta zer nolako Institutua nahi dugun eta nola lortu nahi dugun definitzeko erreferentzia-patroiak ere. Azken finean planifikaziorako praktikoa eta errealista den tresna bat baino ez da.

## **1.- INSTITUTUKO HELBURU OROKORRAK**

### **1.1.- LEHENTASUNEZKO ILDOAK**

Institutuaren ildo estrategikoak bere Hezkuntza Proiektuan definitzen dira. Ildo guzti horiek eguneroko funtzionamenduan aurkitu ditzakegu. Dena dela, 2019-20 ikasturte honetan ondoko hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan berrikuntza metodologikoan sakontzea, hezkuntza komunitateak hitzartutako printzipio pedagogikoak eta garatu behar diren oinarritzko gaitasun eta gaitasun orokorrak kontuan izanez, inklusibitate-printzipioa aintzat hartuz eta informazio eta komunikazio teknologien arloko berrikuntzak, bereziki, bultzatuz.
- Ikasleen partaidetza institutuan bultzatzea, parte hartzeko bideak ezarriz eta aukerak sortuz.
- Elkarrekiko errespetua, tolerantzia, lankidetzaren eta elkartasuna printzipioetan oinarritutako bizikidetzaren kudeaketan hezkuntza komunitateko kide guztiak inplikatzeko, ikasleriaren giza trebetasunak garatzen saiatuz.
- Institutuan erabiltzen diren hezkuntza instrumentalen garapenera dagokionez tratamendu bateratua, errealista, funtzionala eta irekia eskaintzea. Euskararen erabilera institutuko esparru guztietan eta hezkuntza komunitateko kide guztien artean indartzea.
- Familiak euren seme-alaben hezkuntzan parte hartzea bultzatzea, elkarren arteko errespetuzko harremanetan oinarrituta, euren eskari eta beharrez erantzunez eta ikasleen etengabeko hazkundea erdietsiz.

### **1.2.- HELBURUAK**

2018-19eko ikasturtearen Ikastetxeko Urteko Memorian zehaztutako hobekuntza proposamenak kontuan izanez hurrengo helburuak proposatzen dira:

- Irakaskuntza-ikaskuntza metodologiaren hobekuntza eta Praktika onak gure ikastetxean ezartzen jarraitu behar dugu, gaur egungo eskakizunei doitzeko: HAUSPOA Proiektua horretarako "giltza" izan behar da.
- Emaitza akademikoaren eta gure irakaslanaren inguruko hausnarketa bultzatzen jarraitzea, ikasleen errendimendu akademikoa hobetzeraren.
- Ikastetxeko Irakurketa Plana burutzea; ikasleen euskarazko komunikatzeko gaitasuna hobetzeko lanekin jarraitzea arlo guztietan, batez ere ahozko eta idatzizko adierazpena.
- IKTek ikasgelan duten ezarpena erraztu eta bultzatzea; heldutasun teknologiko erdiko ziurtagiria lortzeko erabakiak hartzea.
- Proiektuen arteko koordinazioa hobetzea, geletan duten eraginkortasuna handiagoa lortzeko.
- Tutorek garatzen duten lana indartzen jarraitzea.
- Ikasleen parte hartzea zentroaren bizitzaren arlo guztietan.
- Irakasleentzako formazio saioen eraginkortasuna hobetzea.

- Errefortzu ordu gehiago eskatzea, baita Curriculum Aniztasuna (CA) egotea ere.
- Administrazio eta zerbitzu langileen euskararen erabilera indartzea.

### 1.3.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA DELA ETA SORTUTAKO HOBEKUNTZA-JARDUERAK

2017ko ikasturteko ebaluazioari dagozkionak:

- 1. Hobekuntza-ekintza: Ikasleek ikaskuntza prozesuan parte hartze aktiboagoa bultzatzea, metodologia berriak ezarriz.
- 2. Hobekuntza-ekintza: Ikasgai guztietan hizkuntza komunikaziorako gaitasuna ( Ahozko zein idatzizkoa) lantzen jarraitzea.
- 3. Hobekuntza-ekintza: Testu egokien aukeraketan oinarrituta, irakurmenaren ulermena lehenestea.
- 4. Hobekuntza-ekintza: kanpoko frogen aurreko prestakuntza bultzatzea ikasle zein irakasleen partetik.

#### 1.4.- HELBURUEN GARAPENERAKO PROPOSATUTAKO JARDUEREN PLANGINTZA

<b>1.HELBURUA</b>	Plan eta proiektu desberdinen berrikuste zein berritzearen inguruko hausnarketa bultzatzea, baita ikastetxearen hezkuntza eskaintzaren inguruan, gaurko komunitatearen beharrei egokitzearen.		
<b>LEHENTASUNEZKO ILDOA</b>	Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.		
<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK</b>
ICP-aren inguruko zuzenketak eta proposamenak aurkeztea.	Zuzendaritza. Batzorde pedagogikoa. Departamendu buruak. Irakasleria.	2019ko urtarrila	-Zuzendaritzak eta Batzorde pedagogikoak ICP-n eguneratu beharrek atalak identifikatu ditu. -Gure ICP eguneratzeko batzordea osatu da. -Departamendu buruen bileran proposamenak aurkeztu dira. -Batzordeak, Departamenduetan eztabaidatu ondoren proposamenak jaso egin ditu.
Behin behineko ICPrako eguneratzeak prestatzea.	Zuzendaritza. Lan taldea	2019ko otsaila	-Batzordeak behin behineko ICP eguneratze partziala osatu du.
Emendakinak eztabaidatzea eta aurkeztea.	Hezkuntza komunitatea	2019ko apirila	-Batzorde Pedagogikoak eta -Departamenduak eguneratzeak eztabaidatu ditu.
Behin betiko ICPrako eguneratzeak prestatzea.	Zuzendaritza. ICP batzordea	2019ko maiatza	-Behin betiko ICP eguneratze partziala
Klaustroak eta OOGk onartzea.	OOG. Klaustroa	2019ko ekaina	-Klaustroak eta OOGk onartu du.

<b>2.HELBURUA</b>	Dolores Ibarruri BHI-n HAUSPOA Proiektua sendotzea, 2018-19 ikasturteko esperientziatik abiatuta beharrezko doikuntzak jarritz ondorengo alorretan eragin positiboa lortzeko: Emaizta akademikoen hobekuntza, familien eta ikasleen behar eta interesei erantzutea, berrikuntza metodologikorako baliabide izatea eta inguruko erakundeen eskaintzaz baliatzea.		
<b>LEHENTASUNEZKO ILDOA</b>	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan berrikuntza metodologikoan sakontzea, hezkuntza komunitateak hitzartutako printzipio pedagogikoak eta garatu behar diren oinarriko gaitasun eta gaitasun orokorrak kontuan izanez, inklusibitate-printzipioa aintzat hartuz eta informazio eta komunikazio teknologien arloko berrikuntzak, bereziki, bultzatuz.		
<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK</b>
Hezkuntza komunitaterako erakargarria den Jarduera Programa osatzea.	Departamenduak, irakasleak. Proiektuaren arduradunak.	2019ko iraila	-Gutxienez, 35 tailer eta jardueren eskaini dugu ikasturtean zehar.
Gainditu-gabeko ikasgaiak dituzten ikasleei banako beharrei doitutako indartzeak eskaintzea.	Departamenduak, irakasleak. Proiektuaren arduradunak.	Irailan: Proposamenak Ikasturtean zehar	-Aurreko kurtsoetako gainditu-gabeko irakasgai dituzten ikasleen %50, gutxienez, izena eman dute indartzeetan, eta esku-hartzearen ondorioz %100ak ikasgaiak gaunditu dituzte.
Ongizatea, aisialdiaren erabilpen positiboa eta jarduera fisikoaren praktikarekin lotutako tailerren eskaintza mantentzea. Batxilergoko ikasleei erakargarriak diren jarduerak eskaintzea.	Departamenduak, irakasleak, gurasoak, erakundeak. Proiektuaren arduradunak	Ikasturtean zehar	-DBHko ikasleen % 65-70ak bitarteko izen emateak lortu ditugu, gutxienez. -Batxilergoko ikasleen % 30-50ak bitarteko izen emateak lortu ditugu, gutxienez. -Parte-hartzaileen interesiei begira asebetetze maila altua lortu dugu.
Udaletxearekin eta inguruko beste erakundeekin adostutako ekintzen programa adostea. Gurasoen partaidetza lortzea Hauspoa arratsaldeetan.	Zuzendaritza. Proiektuaren arduradunak. Gurasoak.	2019ko iraila	-Ikasturte honetan egokiz funtzionatu duten jarduerak Programa iraunkor batean sartu dira. Jarduera berriak proposatu dira. -Gurasoek burututako gutxienez jarduera bat eskaini dugu.



<b>3.HELBURUA</b>	Ikasleen emaitza akademikoen azterketa sistematikoan aurrera pausak egitea, hobekuntzarako beharrezkoak izango diren curriculum eta antolakuntza neurriak bideratzeko abiapuntu bezala.		
<b>LEHENTASUNEZKO ILDOA</b>	Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.		
<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK</b>
Departamenduetan eta Batzorde Pedagogikoan irakasgaika eta taldekako emaitzen jarraipena eta hausnarketa egiten jarraitzea.	Ikasketa burutza Batzorde P. Departamentuak	1.eta 2. ebaluazio saioak eta gero.	-Kalifikazioen erregistro estatistikoa plazaratu dugu. -Batzorde Pedagogikoak Kalifikazio orokorrenen diagnosis egin du. -Departamenduek dagozkien kalifikazioen inguruko hausnarketa egin dute. -Departamenduek hobekuntzarako neurriak abian jarri dituzte.
Emaitza akademikoen azterketaren ondorioz, eta ikasleen irakaskuntza-praktikaren inguruko iritziak kontutan hartuta, hobekuntzarako neurri zehatzak proposatu, eta indarrean jartzea.	Ikasketa burutza Batzorde P. Departamentuak	1.eta 2. ebaluazio saioak eta gero.	-Departamenduetan, ikasleek irakaskuntza-praktika baloratzeko eredu adostua erabili da. -Departamenduek adierazitako neurri zehatzak burutu dira. - Hezkuntza komunitate osoari hobekuntzarako neurri zehatzak helarazi egiten zaizkio.

<b>4. HELBURUA</b>	Plan eta proiektu desberdinen berrikuste zein berritzearen inguruko hausnarketa bultzatzea, baita ikastetxearen hezkuntza eskaintzaren inguruan, gaurko komunitatearen beharrei egokitzearen.		
<b>LEHENTASUNEZKO ILDOA</b>	Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.		
<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK</b>
Ikastetxeko Hezkidetzeta Plana berritzea.	Ikasketa burutza. Orientazio departamendua. Hezkuntza komunitatea.	2019ko abendua	-Plana berritu egin da. -Hezkidetzeta batzordea osatu eta ikasturtean zehar gutxienez hirutan bildu da.
Erasmus + Proiektuaren helburuak jorratzea, bazkideak izango diren beste ikastetxeekiko elkarlanean eta "Nola bihurtu teknologikoki independentea den bidaiari europarra" atala ere abian jartzea.	Zuzendaritza. Erasmus + Arduradunak eta bazkide taldea.	Ikasturtean zehar	-Europako beste lurraldeekiko ikasle zein irakasleen arteko egonaldiak arrakastaz gauzatu dira.
STEAM Proiektua abian jartzea.	Proiektuaren arduraduna. Irakasleria.	Ikasturtean zehar	-Partehartzaileen asebetetze maila.
Ikastetxeko Harrera Planaren eguneratzea.	Ikasketa Burua	2019ko iraila	-Ikasle etorkinei eman beharreko harrera eta esku-hartzearen oinarriak Harrera Planean txertatu dira. -Ikasle etorkinekin erabili beharreko baliabide didaktikoen bilduma sortu dugu.
Agenda 21eko eskola jasangarriaren ziurtagiria eskuratzea	Proiektuaren arduraduna. Irakasleria.	2019ko maiatza	-Ziurtagiria lortu dugu.
Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren batzordea egonkortzea.	Zuzendaria. Batzordekideak	Ikasturtean zehar	-Hizkuntza Proiektuari egindako emendakinak aztertu ondoren Proiektua eguneratu da.
Ikastetxeko Bizikidetzeta Planean Bizikasi ekimenaren araberako aldakuntzak txertatzea	Zuzendaria. Batzordekideak	Ikasturtean zehar	Ikastetxeko AJAn BAT taldeko egituraketa eta funtzionamendua txertatu dugu.
Hezkuntza-indartzeko banakako plana berrikustea.	Ikasketa burutza. Batzorde Pedagogikoa. Departamenduak	2019ko urtarrila	Irakasleen pertzepzioan HIBPko prozedura erraztu eta argitu egin dugu.

<b>5.HELBURUA</b>	Akordioak adostu irakasleen artean, hainbat testu informatiboaren irakurketa koherentziaz lantzeko ikasgelan idatzizko ulermena hobetzeko.		
<b>LEHENTASUNEZKO ILDOA</b>	Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarriz.		
<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK</b>
Irakurketa planaren diseinua burutzea epeka: hasierako fasea, sentsibilizazioa, diagnostikoa eta helburuen diseinua.	Zuzendaria eta Irakurketa Plana burutzeko koordinadorea.	1 hiruhilekoa	-Koordinadorea izendatu da eta ibilbidea aurkeztu da Departamendu buruen bileran eta departamenduetan. -Ebaluazio Diagnostikoaren eta Normalkuntza datuak baliatuz diagnosia gauzatu da. -Beharren araberako helburu zehatzak agertu dira.
Irakurketa Planaren zirriborro dokumentua departamenduetan lantzea eta haien ekarpenak jasotzea.	Plana burutzeko koordinadorea. Departamendu buruak. Departamenduak.	2 hiruhilekoa	-Adibide anitzak aurkeztu dira departamenduetan landu direnak. -Departamenduen ekarpenak islatu dira Proiektuan
Irakasleriaren arteko akordioak lortzea irakurmenaren alorrean.	Departamendu buruak. Departamenduak.	2 hiruhilekoa	-Testu informatiboren irakurketa koherentziaz lantzeko adostasunak lortu dira irakasleen artean. -2020-21 ikasturteko programazio didaktiko guztietan testu informatiboren irakurketa adostua txertatzeko konpromezua lortu da
Irakurketa Plana osatzea Ikastetxeko Hizkuntza Planarekiko koherentziaz.	Zuzendaria eta Irakurketa Plana burutzeko koordinadorea. Hizkuntza Plana egiteko batzordea.	3 hiruhilekoa	-Irakurketa Plana Ikastetxeko Hizkuntza Planean txertatu dugu.

<b>6.HELBURUA</b>	IKTen erabilera ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bultzatzea. Hezkuntza-komunitatean komunikazioen eraginkortasuna erraztu		
<b>LEHENTASUNEZKO ILDOA</b>	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan berrikuntza metodologikoan sakontzea, hezkuntza komunitateak hitzartutako printzipio pedagogikoak eta garatu behar diren oinarriko gaitasun eta gaitasun orokorrak kontuan izanez, inklusibitate-printzipioa aintzat hartuz eta informazio eta komunikazio teknologien arloko berrikuntzak, bereziki, bultzatuz.		
<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNAK ETA ERAGILEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK</b>
IKT Heldutasun teknologiko ertaineko mailaren ziurtagiria lortzea.	Zuzendaritza. IKT arduraduna	Ikasturtean zehar	-Abenduan eta Otsailean Departamenduetan egindako autoebaluazio emaitzak eta jasotako informazioa. -Martxoan egingo den auditoriak eskatutako baldintzak bete izan ditugu
Irakasleek G-Suite zerbitzuaren erabilpena bideratzea.	Zuzendaritza. IKT arduraduna	2019ko Urritik aurrera.	-Irakasleria, G Suite Zerbitzuen inguruko formazioa egin ostean, eguneroko lanean zerbitzua erabiltzen hasi da.
Ikastetxeak familiekin komunikatzeko prozesuetan "Zabalkunde Zerrenden" erabilpena sustatzea, papera erabili beharrean.	Zuzendaritza.	2019ko iraila.	-Ikastetxeko komunikazioak familien % 100ak zabalkunde zerrendaren bidez jasotzen ditu. -Difusio zerrenda berariazkoak sortu dira asebetetzez.
Irakasleen posta korporatiboaren erabilpena erraztu eta bultzatzea.	IKT arduraduna	2019ko iraila.	-Irakasleriak posta korporatiboa, unitate partekatua eta beste zerbitzuak asebetetzez erabiltzen du.
Web orrialdearen ikusgaitasuna, eraginkortasuna eta erabilpena hobetzea.	IKT arduraduna. Web orrialdeko arduraduna. Kanpoko agentea.	2019ko urrian	-Web orrialdearen eguneratu dugu. -Komunitateak web orrialdearen edukien eskuragarritasunaren araberrako pertzepzioa hobetu da.

## 2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN PLANA

### 2.1.- ZENTROAREN ANTOLAMENDUA

#### 2.1.1.- Institutuko ikasle eta taldeak

Institutuan hiru etapa daude: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Heziketa Zikloak:

ETAPA	KURTSOAK	TALDEAK	EREDUAK	IKASLEAK			
DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	1	1D		D	21		
		1E		D	21		
		1F		D	22		
		1G		D	21	85	
	2	2D		D	17		
		2E		D	19		
		2F		D	17	53	
			3D		D	24	
			3E		D	25	49
	4		4D		D	19	
			4E		D	18	
			4F		D	19	56
BATXILERGOA	1	1D		D	21		
		1E		D	16	37	
		2D		D	31	31	
HEZIKETA ZIKLOAK goiko maila	GKAIT/ EFT	TSEAS1A	A		25		
		TSAF1D		D	24	49	
		TSEAS2A	A		22		
		TSAF 2D		D	21	43	
		TAFAD 2D			8		
Guztira: 20 talde						411	

Batxilergoko 1. mailan bi taldeak Zientzien eta Teknologiaren Batxilergoko (ZTB) ikasleak eta Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergokoak (GGZB) banatuz osatzen dira, ZTBko ikasleak 21 eta GGZBkoak 16 direlarik (horietariko 6 Giza Zientzien bidekoak eta 10 Gizarte Zientzien bidekoak). Batxilergo 2.D talde bat baino ez denez ZTBko ikasleak sartu dira, 19 ikasle osotara eta GGZBkoak, 12 ikasle: 6 ikasle Gizarte Zientzietakoak eta 6 Giza Zientzien kidekoak.

Goi Mailako Heziketa Ziklo bi dugu: Oraingoz Gorputz- eta Kirol-Ekintzen Sustapena 2 mailan 8 ikasle matrikulatu behar izan badira ere gaingitu-gabeko moduluak dituztelako.

Heziketa Zikloak hauexek dira: Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntzako Goi Mailako Teknikaria "A" ereduak eta Egokitze Fisikoko Goi-mailako Teknikaria "D" ereduak. Aurten 2 mailak indarrean sartu dira.

#### 2.1.2.- Irakasleria eta tutoretzak

Irakasleok 52 dira guztira, haien barnean, adinagatik 1/3eko ordu murrizketa duten 4 irakasle, Gorputz hezkuntza irakasle batek ere 5/6 jardunaldia du. Azkenik 2/3eko jardunaldiaz Euskara irakasle bat dago eta 1/3ko jardunaldi batez informatika irakasle bat eta orientatzailea.

Kurtsokoz kurtsoko irakasleriaren banaketa, tutoretzak barne, honako eranskinetan dago:

- I. eranskina - DBH 1. kurtsoko irakasleria.
- II. eranskina - DBH 2. kurtsoko irakasleria.
- III. eranskina - DBH 3. kurtsoko irakasleria.
- IV. eranskina - DBH 4. kurtsoko irakasleria.

V. eranskina - Batxilergoko irakasleria.

VI. eranskina - Heziketa Zikloetako irakasleria.

Kurtsoen tutoretzaren banaketari buruzko erabakitako elkar akordioak esaten duenaren arabera, irakasleria osoa dagokion tutoretzaz arduratuko da bi ikasturtetan zehar DBHn, behin betiko irakasleek, ahal den neurrian, ardua hartuz. Irizpide honi ezin zaio eutsi batxilergoan ez dagoelako ziurtatzerik 1.go kurtsoko tutorea 2.ean ere arituko dela. Aldi berean, DBH 1 mailako ikasleriaren tutoretza lana indartzea erabaki dugu tutore laguntzailearen rolari jarraipena emanez.

### 2.1.3.- Elkargoaren organoak

Institutuko kudeaketarako elkargoaren organoen osaketa, VII. eranskinean (Elkargoaren organoak) dago, hurrengoak dira:

**Ordezkarien Organo Gorena (OOG)** hezkuntza-komunitatearen kide guztiek zentroko gobernuan parte-hartzeko organoa da. Organo honek lau batzorde dauzka: Batzorde Iraunkorra Batzorde Ekonomikoa Jantoki Batzordea eta Auto-babesa Batzordea.

**Irakasleen Klaustroa** irakasleek parte-hartzeko berezko organoa da baita zentroan goi mailako koordinazio didaktikorakoa ere.

**Zuzendaritza Taldea**, bost kideek osatuta, astero behin, gutxienez, bilera egiten duena.

**Koordinazio Pedagogikorako Batzordea.** Institutuko Urteko Plan honetako ekintzak aurrera eramateko ardua hartzen du. Mailetako eta etapetako koordinazioaz arduratzen da eta etapa eta maila ezberdinetan eragina duten ekintzetan irizpide komunak ezarriko ditu. Honez gainera, osagarriko eta eskolaz kanpoko ekintzetarako programa betetzen den ikuskatuko du. Astero ordu bateko bilera egiten du.

**Departamentuko Buruen Batzordea.** Irakasleen klaustroko batzordea da eta eztabaidagune- eta koordinazio- izaera badu. Departamentuko buruen batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua egitearen, martxan jartzearen eta ebaluazioaren koordinatzea eta proiektuari egin dakizkikeen aldaketak koordinatzea da. Bere betekizunen artean ere hauexek daude: premiazko izaera duten Institutuko funtzionamendu-aspektuez eztabaidatzea eta zuzendaritza taldearen eta departamentu guztien (eta, beraz, zentroko irakasle guztien) artean informazioa transmititzea. Hamabostean behin batzen da.

**Bizikidetzak Behatokia** Institutuan bizikidetzak kudeatzeko arduraduna da. Bere helburua harreman baikorrak eta bizikidetzak onuragarria ezartzea da. Bizikidetzak Plana proposatzeko eta garatzeko ardua dauka.

### 2.1.4.- Pertsona bakarreko organoak

Epigrafe honetan Koordinaketaren Karguak eta Departamentuko Burutzak daude. Hau guztia VIII. eranskinean (Pertsona bakarreko organoak) dago.

### 2.1.5.- Irakasleen koordinazioa

Irakaskuntza lanak koordinatzeko une ezberdinak behar ditu, aipatutako Elkargoaren Organoetan, kurtsoko lan taldeek aldiro egiten ez dituzten bileretan eta irakasle talde ezberdinek aldiro egiten dituzten bileretan:

- Departamentu bakoitzeko bilera: ordubete astero
- DBHko 1., 2, 3., eta 4 .kursoko tutoreak orientadorearekin: ordubete astero mailaka.
- Batxilergoko 1. eta 2. kurtsokoak orientatzailearekin: ordubete hamabostero mailaka.
- Heziketa Zikloko tutoreak: beharren arabera batuko dira orientatzailearekin.

### 2.1.6.- Ikasle eta irakasleen ordutegiak. Aukerakotasuna. Errefortzuak.

Hezkuntza etapa ezberdinetarako eta urtearen aldi ezberdinetarako Institutuko ordutegiak X. eranskinean (Institutuko ordutegiak) daude.

Irakasleriaren ordutegiak Eskola Jarduera Dokumentuan (DAE izenekoan) bilduta daude, ordutegi hauek irakasle gelan agerian daude, baita Irakasle eta zuzendaritza taldearen zaintzak ere.

Irakasgaien banaketa eta mailakako eta ereduakako irakasleen esleipena taldeetan, aukerakotasuna eta errefortzuak barne, honako puntu hauetan laburbiltzen da:

- Errefortzuak DBHko 1. mailan, Matematika, Euskara eta Ingeleran lau taldetik bost egiten da.
- Errefortzuak 3. Mailan: Matematikak eta Euskara.
- DBHko 4. Mailan, ibilbide Akademiko Zientifiko zein Humanistikoa jorratuko dute, Matematika Akademikoak eta Aplikatuak ikasteko aukera eskaini zaielarik. Ibilbide Zientifikoan Fisika-Kimika eta Biologia-geologia talde bana. Ibilbide Humanistikoan Latin eta Ekonomia talde bina. Guztiek ere, Informatika (2 talde osotara osatu da) eta Frantsesa asigaturen artean hautatu behar izan dute.
- Batxilergoko bikoizketak egin dira Institutuan dauden Batxilergo Modalitateak direla eta, ikasle kopurua, eredu linguistikoak eta ordu kredituaren arabera. Eskaintzen diren irakasgaiak hauexek dira:

		19-20			
		Zientziak	Giza eta Gizarte Zientziak		
			Humanitateak	Gizarte Zientziak	
1.	Ardatzeko ikasgaiak	Mate. I	Latina I	GZ Mate I	
		Fisi-Kimi	Historia Garaikidea		
		Bio-Geo	Ekonomia		
	Berarriazko ikasgaiak	Anatomia/Frantsesa I			
		Informatika I			
		Aho. Kom. Ingeleraz/Laboretegi teknika			
		Zientziak	Giza Zientziak		
2.	Ardatzeko ikasgaiak	Mate. II	Latina II	GZ Mate II	
		Fisika	Biologia	Filosofiaren H <sup>a</sup>	
		Kimika	Ekonomia		
	Berarriazko ikasgaiak	Informática II			
		Psikologia			
		Jarduera Fisikoa, Aisialdia eta Osasuna			

- Hezkuntza Zikloetan curriculum emanda dator eta ez dago aukerakotasunik. Goi Mailako Zikloan errefortzu batzuk egiten dira, matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera emandako ordu kredituan oinarrituta.

### 2.1.7.- Ebaluazio datak

Ebaluazio datak XI. eranskinean (Ebaluazio datak) daude.

Bestalde, DBHrako honako hezkuntza-taldeen bilera hauek, ebaluazio saiok aparte, ezarri dira talde bakoitzaren ibilbidea komunean jartzeko:

Hasierako ebaluazioa, DBH, Batxilergoa eta Heziketa Zikloak: 2019ko urriaren 9an.

Planifikatzeko Aurre-ebaluazioa (DBH): 2020ko maiatzaren 13an.

2. ebaluazioan koordinaziorako eta ikasleen jarraipena egiteko behar den informazio bilketa idatziz batuko da ikasketa burutzak eta DBHko koordinadorak gainbegiratu.

### 2.1.8.- Familiak

Elkarbizitza Arauek adierazten dutenen arabera gurasoekiko bilera orokorrak 2019ko urriaren 9an egin dira.

Elkarbizitza Arauetan adierazten diren gainontzeko bilerak edo kontaktuak ikasturtean zehar egingo dira.

Beste aldetik, Institutuko familiak Pasionaria izeneko ikasleen Guraso Elkarte bat osatzen dute, ea ikasleen familia guztiak parte hartzen dutena eta Institutuarekin aktiboki elkarlanean aritzen dena. IGEko zuzendaritza batzordearen osaketa IX. eranskinean (IGE, Administrazioa eta Zerbitzuak) dago.

Antolakuntza eta Jarduera Araudiak agintzen duen erara, azaroaren 20an gurasoen batzarra egingo dugu.

### 2.1.9.- Administrazioa eta Zerbitzuak

Institutuak administrazioa eta zerbitzu lanetarako, IX. eranskinean (IGE, Administrazioa eta Zerbitzuak) agertzen denaren arabera, honako langileak ditu: 2 menpeko, 2 administratibo y 2 garbitzaile.

Azpiktratatutako zerbitzuei dagokienez, zera daukagu:

Jantokia: Jantokia: Katering zerbitzua da, bi sukaldarien ardurapean. Irakasle batek, Txemi Rodriguezek, koordinatzen du lanaldi erdiko jardunaldiarekin.

2 begirale dago ikasleak zaintzeko, txanda bakar batean bazkaltzen dute eta (76 ikasle).

Eskola garraioa: Idazkaritzak koordinatuta. Garraiatzen diren ikasleak 41 dira: 19 lerro batean Transportes Blanco enpresarekin, 21 beste lerro batean Transportes Bidasoa enpresarekin eta ikasle batek taxi zerbitzua erabiltzen du (Jonathan Taxia).

Garbiketa: Langile batek lanaldi osoan eta beste batek lanaldiaren bi herenean zentroaren garbiketa lanak osatzen dute. Hamabostean behin, gainera, beste langile bat jolastokietako garbiketa egitera dator.

Lorazaintza: Garbiketaz arduratzen den enpresa berberak egiten du.

### 2.1.10.- Beste zerbitzu batzuk eta lankidetzak

Eskaera egin eta gero eta Hezkuntza Sailak agindutako prozedura errespetatuz, Institutuko gela batzuk udalerriko irabazi-asmorik gabeko honako elkarte hauei lagatzen diegu:

Gallartako Emakumeen Elkarte, Yoga egiteko.

Sendoa Atletismo Cluba; Atletismoa praktikatzeko.

Gallartako ahotsa Boleibol Kluba

Beste aldetik, udalerriko edo meatzaldeko udalerriko elkarteekin edo entitateekin Institutuak dituen harremanak onak dira, elkarlanean, alegia. Abanto-Zierbenako udaletxearekin, herriko eskolekin, alboko herriko institutuekin, Euskaltegiarekin, Meatzaritzako Museoarekin etabarrekin mantentzen direnak nabarmentzekoak dira.

## 2.2.- PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK

Irakasleak, orokorrean, eta klaustroa, departamentuak eta irakaskuntza-taldeak, bereziki, irakaskuntza-ekintzak programatzeko eta onartzeko arduradunak dira, bakoitzak bere mailan. Departamentuek egindako programazio didaktikoak ikasketa burutuan daude hezkuntza komunitateko kideen esku. Irakasle bakoitzak dagokion ikasleriari ezagutarazi egingo ditu.



## **2.3.- BERARIAZKO PROGRAMAK**

### **2.3.1.- Irakaskuntzarako ekintzak**

#### **2.3.1.1.- Pedagogia Terapeutikoko Irakasleak**

Pedagogia terapeutikoko taldea 2 irakaslez osatuta dago. Orientabide departamentuak koordinatuta, Hezkuntza Beharra Bereziko ikasleez arduratzen dira, gela berezi bat horretarako edukiz.

#### **2.3.1.2.- Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Proiektua**

Ikasturte honetan irakasle bakar bat dago lanaldi erdiarekin, Marian Alonso, DBHko 2. mailako E eta F taldeetako 8 ikasleekin lan egingo duena, gelaren barruan, Euskara irakasgaian. Balio etikoak irakasgaian banakako tutoretza egiten du ikasle hauen musika irakaslearekin batera.

#### **2.3.1.3.- Ikasle ijitoekiko esku-hartze proiektua**

AMUGE izeneko elkarteak, Ijitoen Eskolatzeko Hobekuntzarako taldearekin koordinatuta, Institutuko ikasle ijitoekin egiten du lan bi arlotan, nagusiki: norbanakoko tutoretza eta familiekiko arreta, irakasleekin, tutoreekin eta ikasketa burutzarekin koordinatuz. Asteazkenero Institutura datorren langile adituak, Ane Labianok, ikasketa burutzarekin eta DBHko koordinatzailearekin bilera bat egiten du, ikasgelan sartu (1F eta 1D, Matematika eta Gizarte alorretan), baita norbanakoko tutoretzak egin ere.

#### **2.3.1.4.- Enplegurako heziketa jarduera programa**

2019-2020 ikasturtea antolatzeke moduari buruzko Heziketa Sailburuordearen Ebazpenean esaten den moduan, Begoña Llorente-k, Heziketa Zikloko koordinatzaileak, koordinatutako enplegurako heziketa jarduera programa bat diseinatu da, XVI. eranskinean (Enplegurako heziketa jarduera programa) azaltzen dena.

### **2.3.2.- Berrikuntza eta Hobekuntza proiektuak**

#### **2.3.2.1.- HAUSPOA Proiektua**

2017-18ko ikasturtean zehar eztabaidatutako prozesu sakon baten ondorioz, 2018-19an jarri genuen martxan DOLORES IBARRURI BHI In HAUSPOA Proiektua. Proiektuaren ebaluazioa oso ona izanda, 2019-20 ikasturte honetan indar berriturik garatuko dugu proiektua, gure hezkuntza-komunitate osoarentzat onuragarria delakoan gaudelako.

Proiektuak ikastetxeari balio erantsia ematen dion tailer eta jardueren eskaintza oso zabala osatzea, ikasturte honetan ere, lortu dugu. Ikasleentzat borondatezko jarduerak diren hauek irakasleek bultzatuak izango dira baita gure eskaintza aberastuko duten kanpoko beste eragileek ere.

Dakizuenek, goizeko ordutegi jarraitua DBH-n (8:30etik 14:30era) mantenduko dugu eta HAUSPOA Proiektua garatzeko ordutegia hezkuntza komunitateari ikastetxeko hainbat gune zabalduko zaie astelehen, astearte, asteazken eta ostegunero 15:00etatik 16:30era.

Ikasturte honetan Proiektuak berrikuntza batzuk izango ditu eraginkortasuna handitzeko, esaterako: ikasleen eta familien parte hartze konpromisoa bultzatzea, tailerretako ikasleen bertaratzea handitzea, tailerren eskaintza ikasleen beharretara egokitzea eta abar.

Helburuak:

- Ikastetxean ekitatea eta bikaintasuna hobetzeko hezkuntza eskaintza zabaltzea;
- Zailtasun sozio-ekonomikoak dituzten ikasleei laguntza egokituagoa emanez.
- Ikaste edo gizarteratze arazoak dituzten ikasleei tresnak eta estrategiak emanez.

-Bikaintasuna ahalbideratzeko gelako lanetik haratago sakondu nahi duten ikasleei aukerak emanez.

-Ikasleriak ikas ohiturak barneratu ditzan ikasten ikasteko gaitasuna lehenetsiz.

-Ikasleen autonomia eta konpetentziak garatzeko baliabideak eskaintzea, euren interes eta beharren arabera jarduerak eskainiz.

-Eleaniztasunaren bidean sakontzea ordutegi barruan hizkuntza gehiago eta ahozotasuna lantzeko aukerak emanez. Irakurketa Plana bere osotasunean garatuz.

-Etixerako lanak zein talde lanak egiteko baliabideak eskaintzea, baita behar den kasuetan laguntza ere.

-Ikasleen integrazioa erraztuz, eta jarduera fisikoaren bidez ohitura osasungarrien barneratzea finkatzea.

-Hezkuntza komunitatearen kideen partaidetza sendotzea, proiektu honen antolaketa eta garapenean gurasoak eta ikasleak ere partaide eginez.

-Eskola giroa eta elkarbizitza hobetzeko bidean jarraitzea, ikasle, guraso eta irakasleen arteko harremanak sendotuz eta gure Ikasle Laguntzaileen formazioa indartuz.

-Inguruko erakundeekiko elkarlanean, eskuragarri diren baliabideak erabiltzea gure hezkuntza eskaintza aberasteko.

2019-20 ikasturteko jardueren Programazioa XVIII. Eranskinean dago.

### 2.3.2.2.- Hizkuntz Normalkuntza

1998/99 ikasturtean hasi ginen, eta horrela, urtero jarraipena eman diogu Institutuan euskararen erabilera sustatzeari eta euskal kultura hurbiltzeko ekintzak bultzatzeari. Zeregin honetan, azken urte hauetan, koordinatzaileak garen Marian Alonsok eta Izaskun Larrazabalek baditugu 9 ordu (5+4) astero lan hau egiteko.

Aurtengo erronka nagusia lau urteko proiektuaren bigarren ikasturteari ekitea da, eta orain artekoari jarraipena ematea, ahal dela hobetuz. Horretarako formaziorako dauden orduen barruan klaustroari lan honetan parte hartzeko gonbitea luzatuko diogu.

Horretaz gain, irakasle eta ikasle batzordeek ere laguntza ematen dute ikasturtean zehar, ahal den heinean, eta batez ere, erabilera sustatzeko. Izan ere, urtean zehar ekintza batzuk finkoak dira: Irrati Maratoia, atsedendietako irrati saioak, neguko solstizioaren inguruko jaia, Agate Deuna, Aste Kulturala, besteak beste.

Udalak herri mailan euskara bultzatzeko aurrera eramaten dituen ekintza guztietan parte hartzen jarraituko dugu aurten ere. Abantoko euskaltegiarekin elkarlanean jarraituko dugu, gure ikasleekin zubi lana egiten, batetik; eta bestetik, herri mailan euskararen inguruan proposatzen diren ekintza guztietan parte aktiboa hartzen; adibidez, Mintzodromoan, Argazki txapelketa, Bertso topaketan...

DBHko 1. mailan hamabostean behin ahozko adierazpena lantzeko saio berezi bat burutzen da; gero, ikastetxetik kanpo, hau da, bestelako eremu batera, akademikoa ez den batera, ikasitakoa praktikan jarritz, Bertso Topaketak, alegia. Horretarako Bertsolarien Elkarteko lankidetzak daukagu, baita Udaletxearen eta IGEren laguntza ere.

Aurten datorren ikasturteri begira antolatuko den "Euskaraldia" dinamika dela eta, antolakuntza lanetan hasiko gara, sentsibilizazioaren arloan.

Azkenik, aipatzekoa da Hauspoa proiektuaren barruan, gure helburuak (ahozkotasuna eta eskoletako ikasleen arteko harremanak euskaraz bultzatzea) betetzeko beren-beregi eskaintzen ditugu tailer bi: Antzerkia eta Eskola Ibiltaria.

Beraz, eta aurrera begira, erabilera dugu helburu, eta hori lortzeko baliabide izan daitezkeenak baliatuz, bide honetan jarraituko dugu.

### 2.3.2.3.- Elkarbizitza

97/98 ikasturtean jarri zen martxan. Ikasle Laguntzaileak DBHko 2., 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasle batzuk dira, elkarrekiko laguntzan trebatzen direnak eta gatazka ebazpena eta ikasle berrientzako harreran parte hartze dutenak. Proiektu honek Udaletxearen eta BAKEOLA izeneko erakundeekin lankidetzarekin eramatea da aurrera.

Honako helburuak zehazten ditugu 2018-19rako:

1. Ikasle berriak aukeratu eta formatzen jarraitzea.
  2. Bitartekaritza proiektua indartzea: Bizikidetzarekiko ekintzak desberdinak martxan jartzea
  3. Bitartekariak formatzea: Bitartekaritza taldearen papera indartzea
- M<sup>a</sup> Carmen Herráez-ek koordinatzen du egitasmo hau.

### 2.3.2.4. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Ikasturtea antolatzeko moduari buruzko Heziketa Sailburuordearen Ebazpenean esaten den moduan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko ekimen honekin antolatuko dira. Aurten honako egitasmoak ditugu:

- Ikasgeletan Beldur Barik materiala lantzea.
- Eguneroko arlo desberdineko lanean emakumeen papera azpimarratzea.
- Abanto Zierbenako emakumeei buruzko liburu bat osatzea eta argitaratzea.
- Emakumeen paper ezkutua aztertzea eta aldatzeko beharraz kontzientziatzea.
- Ikasturtean zehar hainbat jarduera egin gure gizartean gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko

M<sup>a</sup> Carmen Herráez-ek koordinatzen du egitasmo hau.

### 2.3.2.5.- Osasuna, afektibo-sexuala, drogamenpekotasuna

Afektibo-Sexuala izeneko proiektua hainbat ikasturte daramatzagu lantzen.

Edukiak hiru lan arlotan antolatzen dira: 1.-Sexualitatea, 2.-Trebetasun pertsonalak eta sozialak, 3.-Drogak eta ohitura osasuntsuak.

Aipatutako arloak lantzen ditu ekintza ezberdinetan eta tutoretza saioetan DBHko, Batxilergoko eta Goi Mailako kurso guztietan.

Horretarako kanpoko eragileekin lankidetzara dugu (Osakidetza, Biko Arloak)

M<sup>a</sup> Carmen Herráez-ek koordinatzen du.

### 2.3.2.6.- Patioen animazioa

Urritik apirilera asteko egunetan, Goi Mailako Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapeneko Hezkuntza Zikloko ikasleak kirol ekintza sustapena egingo du DBHko ikasleentzat atsedendaldietan, Belén Hernández eta Oier Santos irakasleak ikuskatuz.

Proiektu honek Lanbide Heziketako ikasleriak ikas-komunitatea aberastea eta lan esparruan eta testuinguru errealean izango dituen ardurak zein gaitasunak garatzea du helburu. DBHko ikasleentzat batez ere, 1<sup>o</sup>DBH eta 2<sup>o</sup> DBH

Egitasmoa: jolasaldiko denboran giro egokia bultzatzeko eta ekintza ezberdinetan parte hartzeko eta telefono mugikorren erabilera bultzatzen eta gutxitzen.

Ikasleentzako helburuak:

GOI mailako ziklo ikasleak TSAF eta TSEAS gizarte trebetasuna eta talde dinamizazioa moduluen barruan benetako begirale eta animatzaileen praktikak betetzen hastea.

Ekintza ezberdinak antolatu.

Materiala eta espazioaren kudeaketa.

Parte hartzaileak lortzea.

Talde lana bultzatzea.

### EKINTZEEN ANTOLAKUNTZA

Hiru egunetan astearte ,osteguna, ostiraletan atsedendietan ekintza ezberdinak bultzatzea:

Proposatu duten ekintzak hurrengoak dira:

- Esku pilota.
- Saskibaloia-mahai tenisa.
- zumba.
- futbola.
- joko ezberdinak.
- Mahai tenisa.
- Elkargunean gai ezberdinei buruz eztabaidak.
- Beisbola.
- Ginkana.
- ikasleak proposatuko duten ekintzak.

### 2.3.2.7.- Agenda 21

Gure herriek eta gure derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeek jasangarritasunaren aldeko heziketa bultzatzea erabaki dute eta horretarako ESKOLA AGENDA 21 proiektua aurrera eramatea erabaki dute herrian eta ikastetxean.

Beraz Eskolako Agenda 21, guztion konpromisoa da, eta, bestetik, ikastetxearen eta haren ingurunearen ingurumen- eta gizarte-hobekuntzaren aldeko ekintza-plana da.

Kontestu honen barruan 2019-20rako egitasmoak, honako hau litzateke:

Eskola Jasangarriaren ziurtapen agiria berriztatzea, 2020 ko eskola jasangarri agiria eskuratuz hurrengo lau urtetarako.

Aurten " Meatzalde for friday " gaia landuko da, eskola guztiaren parte hartzea bultzatuz. Honi lotuta aldaketa klimatikoa eta plastikoen gaia landuko dugu.

Udaletxearekin elkarlanean "eskola ibilbidea" jorratuko da, aurtengo gaiarekin lotuz.

Urteroko dinamikei jarraipena emango zaie eskola jasangarri bat lortzeko helburuarekin

Oier Etxeberria proiektuaren arduraduna dugu aurten.

### 2.3.2.8.- IKT

Aurtengo helburu nagusia Heldutasun Teknologiko tarteko maila lortzea da. Horretarako, Google Suite plataforma ezagutzeko formakuntza jasoko dute irakasleek eta %50ak inguru bere klaseetan erabiltzen ahaleginduko gara. Hiru bilera aurreikusi dira departamentuekin, auditoria aurretik materiala bildu eta autoebaluazioa egin ahal izateko.

Maila honek beste baldintza batzuk eskatzen dizkigu, webgune berriaren bitartez, sare sozial eta difusio zerrenden bitartez eta Google domeinuak ematen dizkigun aukeren bitartez, barneko eta kanpoko komunikazioak hobetuko dira.

Eskola 2.0 eramangarriak DBH 1. ziklotik haratago zabaldu. Hiru armairu prestatuko dira erabili nahi duten irakasleek erreserba dezaten. Bi armairu DBH solairuan eta bat batxilergo solairuan. Tailerrean ere 30 eramangarri inguru egongo dira, bertan oso erabilgarriak izanen baitira.

Hiru informatika geletan dauden ordenagailuen sistema eragileak berrituko dira urtean zehar.

Azkenik, Heldutasun Teknologiko tarteko maila lortzekotan Sare Hezkuntza proiektuan parte hartzeko prozesua hasiko dugu.

### 2.3.2.9. ERASMUS +Proiektua

ERASMUS+ Europar Batasunaren hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirol-egitasmo berria da, 2014ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo dena. ERASMUS+ egitasmoak bere baitan hartzen ditu aurreko 'Etengabeko Prestakuntza (Erasmus, Leonardo da Vinci, Comenius eta Grundtvig)', 'Gazteak Ekinean', 'Erasmus Mundus', Alfa III, Tempus eta Edulink egitasmoak.

Ikastetxearen klaustroak onartutako proiektua da eta ingelera mintegia bultzatuta, Kontxi Bergeraren laguntzarekin, Gasteizeko berritzegune nagusiaren nazioarteko proiektuen arduraduna.

Zandvoort Ann Zenen urriaren 12tik 14era seminario egin ondoren, 17 herrialdeko 70 irakasle egonda eta SEPIEen babesarekin (Servicio Español para la internacionalización de la educación) bazkide bi aurkitzeko helburua lortu zen. Harremanetan jarri ginen Finlandia, Estonia eta Italiarekin.

Proiektuaren gaia "Etorkizuneko lanpostuak eta behar diren trebetasunak" izango da (Future professions and working life skills).

Zeharkako konpetentziak landuko dira ere bai. Adibidez dieta orekatua, genero berdintasuna, hondakinen kudeaketa, hizkuntza gaitasuna eta IKT.

Proiektuaren ildoak bai gurasoen artean bai ikasleen artean zabalduko ditugu. Udaletxearekin egon gara harremanetan ere bai eta EMELKA elkartearekin. Biak prest daude laguntza emateko.

Proiektua Erasmus+ martxoaren 2018an aurkeztu zen Finlandiako agentzian, haiak direlako koordinatzaileak. Nahiz eta abuztuan jaso, interesa handia aurrera eramateko ezezko emaitza. Sortu zuen aurkeztutako proiektuak eta horren ondorioz aldaketa eta zuzenketa batzuk proposatu zituen berriro martxoaren 2019an aurkezteko eta diru laguntza jasotzeko. Europako Batasunaren diru-laguntza jasoko badugu, hauxe izango da kronograma:

2018-2019: iraila eta martxoaren artean herrialde partaideak harremanetan jarraitu izan dute Finlandiako Agentziak proposatutako zuzenketak egiteko.

2018: martxoan Finlandiako Agentzian aurkeztu zen proiektua.

2019: abuztuan agentziak erantzuna eman digu eta onartua dagoela esan digute.

2019: irailean, bai institutoan eta herrian zabaldu dugu onarpenaren berria eta ikasle batzuk aurkeztu dira mobilitateetan parte hartzeko. Haien artean zabaldu dugu galdetegi bat eta horren ondorioz hautatu ditugu partehartzaileak. Logo lehiaketa bat ere aurkeztu da eta institutoko ikasle guztiak gonbidatuta.

daude parte hartzera.

2019-20 / 2020-2021: Bi kurtso hauetan gure 3. eta 4. DBH-ko ikasleak beste herrialdekoekin trukatu dira eta aldi berean proiektuaren barruan dauden irakasleak parte hartuko dute formakuntzarako ekintzetan.

2020: urtarrilaren amaieran bost ikasle mugituko dira Finlandiara programaren barruan dauden bi irakasleekin.

2020: maiatzaren amaieran gure zentroa izango da harrera egingo diona beste Europako ikasleei.

Beste alde batetik, Norvegia eta Finlandiako beste proiektu batean sartu gara. Kasu honetan, ingelera departamentuaren bidez IES Dolores Ibarruri izango da proiektuaren koordinatzailea. Proposatutako gaia da "Nola bihurtu teknologikoki independentea den bidaiari europarra" (How to become an independent ICT European traveller). Proiektuaren burutzeko kronograma aurrekoaren jarraipen berbera izango du, kontutan izanda, kasu honetan ikasle parte hartzaileak Batxilergoko 1 eta 2 mailakoak izango ziren. Oraindik ez digute ontzat eman eta geratu da momentuz baztertuta

### 2.3.2.10. STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta matematika Artea eta Humanitateak)

Proiektuak ikerketa teknologikoa izango du ardatz. Honen barruan hainbat aukera izanik eraikuntza, 3D inprimaketa eta robotika garatuko dira gehien bat. DBH 3. mailatik Batxilergo 2. mailara arte izango du eragina.

Honako hauek dira lortu beharreko helburu nagusien zerrenda:

Bokazio zientifikoak bultzatu, neskengan bereziki, rolak era berdinean banatuz, zientziaren zein ingeniartzaren arloko lanbideen inguruko estereotipoak deseginez.

Emakumezkoak zientzian izan eta izango duten garrantziaz jabetu.

Lan kooperatiboaren garrantziaz jabetu eta lan taldean jarduteko estrategiak garatu, lan desberdinen banaketa kudeatuz eta lan plangintza bat garatuz.

Hezkuntza eguneroko errealitatera eta lan mundura gerturatu.

Teknologia kontsumitzaile hutsak izatetik sortzaileak izatera pasatu.

Programazio oinarriak ezagutu eta horrek barnean dituen gaitasunak bereganatu: logika ahalmena, irudimena, abstrakzioa, arazoaren ebazpena, pentsaera konputazionala, ideien klasifikazioa eta ordena.

Fabrikazio eransgarria kontzeptua ezagutu eta landu.

Webguneak sortzen ikasiz, gaitasun digitalaren ezagutza sustatu eskola-komunitatean.

Irudimena eta sorkuntza indartu ikasleengan planteatzen zaizkien proiektuei irtenbide desberdinak aurkituz.

STEAM arloen irakaskuntza integratua eta horiek in loturiko konpetentzien garapena bermatzea.

## 2.4.- ZENTROAREN EBALUAZIO PLANA

Ebaluazioa prozesuen hobekuntzaren bidez bai zentroko kudeaketan bai heziketako praktikan eragitea baimentzen digun baliabidea da. Ikastetxearen Urteko Plan hau, beraz, ikasturtean zehar sortuko diren zuzenketak aurrera eramateko irekita dago. Horretarako OOG, klaustro eta, bereziki, zuzendaritza talde, Departamentu eta irakasle taldeen jarraipena beharrezkoa izango da. Zuzendaritza taldeak hobetzeko sortutako iradokizunak, proposamenak eta ekimenak bilduko eta bideratuko ditu dagokion taldeak onartzeko eta martxan jartzeko.

Aurreko urteetan bultzatutako etengabeko hobekuntza ideiarekin jarraituz, Institutuaren ebaluazio orokor bat egingo dugu, ikasturtearen hirugarren hiruhilekoan irakasleei zuzendutako lau galdeketa espezifikoren bitartez: zentroaren helburu orokorren ebaluazioa, zentroaren funtzionamendu orokorreko alderdien ebaluazioa, zentroko zerbitzuen eta programen ebaluazioa eta, azkenik, organo desberdinei edo institutuaren taldeei zuzendutako ebaluazio orokorra.

Ordezkaritza Organo Gorenaren gainontzeko estamentuen iritzia bilduko dugu arestian aipatutako ebaluazio orokorrerako galdetegiaren bitartez.

Ikasturtean zehar eginiko hainbat iritzi, ohar eta balorazio kontutan izango dira honako egoera hauek baliatuz: ikasleak ebaluatzeko saioak, gobernu- eta pedagogia-organok berrikusteko bilerak, familiekin egindako bilerak, etab.

Ikasturte hau zuzendaritza taldearen lau urteko agintearen azken urtea denez, institutuaren ibilbidea baloratzeko gogobetetze inkesta bat egingo dugu, zuzendaritza proiektuan adierazitakoa betetzeko nahian.

Ekainean, departamentuko buruak, proiektuen koordinatzaileak eta zuzendaritza taldeak dagozkien azken txostenak aurkeztuko dituzte Ikastetxearen Urteko Memoria osatuz. Hau OOGk onartu behar izango du eta datorren ikasturteko Ikastetxearen Urteko Plana egiteko oinarria izango da.

## 3.- ORIENTAZIO ETA TUTORETZA PLANA

Hezkuntza Sailaren orientabideei jarraituz, ikasturte honetako Orientazio eta Tutoretza Plana tutoreek egin dute, orientatzailearen koordinazioarekin. XII. eranskina (Orientazio eta Tutoretza Plana) da prestatutako lana.

## **4.- URTEKO BIZIKIDETZA PLANA**

Honek bizikidetza hobetzeko ekintzak eta gatazken trataera batzen ditu. 2016-17 ikasturtean Elkarbizitza behatokiaren testuinguruan Plana eguneratu egin zen: XVII eranskina (Urteko Bizikidetza Plana).

## **5.- EKINTZA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN PROGRAMA**

### **5.1.- EKINTZA OSAGARRIAK**

#### **5.1.1.- Ekintza Didaktikoak**

Departamentu guztiek ikasturtean zehar antolatu nahi dituzten jarduerak aurkeztuko dira zuzendaritzaren aurrean. Zuzendaritzak, adostutakoa aplikatuz, aurreikusitako ekintzekin taula bat prestatu egin du, XIV. eranskina (Ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen programa), Institutuko elkargoaren organoek onar dezaten.

#### **5.1.2.- Jai-Ekintzak**

Ikasturte honetan, eta Institutuko ekintzetan ikasleen parte-hartzearen garrantzia dela eta, Urteko Bizikidetza Planaren barruan jasotako jai ekintza hauek ospatzen dira Institutuan: lehenengo hiruhilekoaren amaiera (urte bukaera eta gabonak) eta ikasturte amaierako txangoa.

#### **5.1.3.- Ikasketa eta Elkarbizitzarako Bidaiak**

Aspaldidanik, kirol edota kultur ikuspegiarekin eta ikasleen arteko elkarbizitza eta laguntasuna bultzatzeko egiten diren Bidaiak hauexek dira:

Elkarbizitza Bidaiak:

DBHko 1 mailan Euskal Girotze barnetegiak: Irailaren 23, 24,25 eta 26.

DBHko 2. Mailan "BERTIZen Elkarbizitza bidaiak" Urriaren 14,15 eta 16an.

Ikasketa Bidaiak: DBHko 4. mailan ( Portugal, martxoaren 23tik 28ra; Burdeos, abenduaren 19-21-Frantsesa ikasten dutenak) Batxilergo 1 ( Dublin otsailak 23tik martxoaren 1era; Burdeos, abenduaren 19-21-Frantsesa ikasten dutenak) eta Batxilergoko 2. mailan ( Paris eta Normandia, martxoak 17-22).

#### **5.1.4.- Ebakuazio-Simulazioa**

Institutuko Ebakuazio Planean agertzen den moduan eta Arrisku Prebentziorako Sailak agintzen duenari jarraituz aurten azaroaren lehenengo hamabostaldian ebakuazio-simulazio bat egin da Institutuan. Hori antolatzearen irakasleentzako saio informatibo bat egingo da eta tutoretza orduetan ikasleei ere informazioa emango zaie.

#### **5.1.5.- Dolores Ibarri Ezagutzen**

2006-07 ikasturtean abiatutako ekintza honek, Abanto-Zierbenako Udalarekin eta Meatzaritza Museoarekin batera bultzatutakoa, Dolores Ibarriaren irudia pertsona guztien eta bereziki emakumeen eskubideen defentsan nabarmendu zuen emakume bezala mantendu nahi du bizidun gure ikasleengan. Ikasturte honetan DBHko 1. eta 4. mailetakako ikasleek saio bat burutuko dute Meatzaritza Museoan eta Batxilergoko 2. mailako ikasleek Dolores Ibarriaren figura historikoa landuko dute saio batean, Meatzaritza Museoaren langile baten laguntzaz.

## **5.2.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**

### **5.2.1.- Eskolaz Kanpoko Ekintzak: Eskola kirola eta beste ekintza batzuk**

Gorputz Heziketa mintegiko irakasle batek, Begoña Llorentek, badu jarduera hauen ardura, astero eskola-ordua ez den ordu bat izango duelarik. Irailtik ekainera Jarduera fisikoak bultzatzea du helburu. Honetarako Guraso Elkarteak behar diren monitoreak esleituko ditu, batez ere Institutuko

Heziketa Zikloetako ikasleak, gastuak ikasle eta guraso-elkartearen artean ordainduko direlarik. Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirola zerbitzuak kudeatutako ekintzak ere aurrera eramaten dira. Egiten diren ekintza guztiak euskaraz egiten direla nabarmendu behar dugu. Besteak beste: Urpekaritza, txirrindularitza, defentsa pertsonala, esgrima, eskia, hipika, mendi irteerak, padela, izotz irristaketa, piraguismoa, surfa, mahai tenisa, arku jaurtiketa, boleibola, dantza modernoa eta futbola.

### 5.2.2.- Euskarazko titulazioa lortzeko ikastaroa

Institutuak, Euskaltegiak lagunduta, Euskarazko titulazio ofiziala lortzeko prestaketan trebatzeko ikastaro bat antolatzen ahalbidetzen du Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzat.

## 6.- IRAKASLEENTZAKO FORMAZIO PLANA

Klaustroak adostutako akordioak batuz eta proiektuetatik datorren formazio eskaintza kontutan hartuz, zuzendaritzak Formazio Plan bat prestatu du, XV. eranskina (Irakasleentzako Formazio Plana).

## 7.- URTEKO KUDEAKETA PROGRAMA

Institutuko kudeaketa ekonomikoak duen urtez urteko izaerak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren pean dagoen neurrian, Ikastetxearen Urteko Planaren atal hau zirriborroan egotera behartzen gaitu. Urteko azken OOGn urteko kontuan onartzearekin batera osatuko da.

### 7.1.- BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA

Gastua arrazionalizatzeko eta arrunta ez den gastua gutxitzeko, helburu ekonomikoak ezarriz, azken ikasturteetan indarrean jarritako neurriek baimendu dute saneatutako baliabide-antolaketa mantentzea. Nabarmenezkoa da izaera didaktikoko eta zentroaren funtzionamendu orokorreko eta irakaskuntzaren garapenerako jarduera guztiak aurten ere mantenduko ditugula. Gainera, behar izan diren baliabideen hobekuntzarako eta zentroaren egoerako eta hornikuntzako hobekuntzarako beste jarduera batzuk egin ditugu:

- Institutuko fotokopiagailuak berritzea.
- Kimika-laborategia hornitzea.
- Polikiroldegiko argi proiektoreak berritzea.
- Polikiroldegiaren ur jaitsierarako tutuak berritzea.
- Informatika gela baten (INFO03) altzarien eta horniduraren hobetzea.
- Plastika gelaren hornidura hobetzea.
- Ongizaterako jardueretarako gela berri bat egokitzea sotoan.
- Bizitza-lerroa instalatzea eraikuntza berriaren teilatuan.
- Institutuaren aurreko hesia berritzea.
- Bi zakarrontzi berri erostea.
- Hornidura didaktikoa: liburutegirako liburuak erostea
- Mantentze lanak: Margotzea, teilatua, elektrizitatea, zurgintza, iturgintza, pertsianak, etab.

Egindakoak bide onetik goazela adierazten digu eta, hori dela eta, ikasturte honetarako aurrekoetan ezarritakoak mantentzea proposatzen dugu:

- Irakaskuntzarekin, formazioarekin, eta abarrekin erlazionatutako jardueren gastua bere osotasunean mantentzea.
- Didaktika arloko funtzionamendu-gastua mantentzea, zarrastelkeriak saihestuz.
- Konponketetarako gastua murrizketa mantentzea, apurketak saihestuz.
- Zentroaren mantenu zuzenerako gastu beharrezkoak mantentzea ahal den heinean.

Irizpide hauek hobekuntzarako hainbat jarduera burutzea ahalbidetuko dute:



- Ongizaterako jardueretarako gela berria hornitzea eta zonaldeko gelak berrantolatzea.
- Fisika-laboregitegira gela berreskuratzea eta zonaldeko gelak berrantolatzea.
- Eraikuntzaren fatxadan arazo arin batzuk konpontzea.
- Material didaktikoa berritzea: arbelak, estazio meteorologiakoa, etab.
- Kanpoko irudia (lorezaintza) berritzea.
- Burdineriaren konponketarekin eta margotzearekin jarraitzea.
- Institutu osoko margotze plan bat abian jartzea, sabaiak barne.
- Idazkaritzako eta zuzendaritzako altzariak berritzea.
- Giltzen sistema berritzea.
- Aldageletako argiztapen berria jartzea.
- Tximistorratzaren eta irratiko emisiorako antenaren instalazioa berriztatzea.

## 7.2.- DIRU-SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

DIRU-SARRERAK		GASTUAK	
Soberakinak	8.500 €	Funtzionamendua	
Hezkuntza Saila		Konponketak	45.000 €
Funtzionamendua	111.000 €	Garraioak	6.000 €
Hornikuntza	10.000 €	Publizitatea	3.000 €
Besteak	25.000 €	Energia, ura, etab.	29.000 €
Besteak		Didaktikoa	45.500 €
Jantokia	65.000 €	Jantokia	70.000 €
Testu liburuak	6.000 €	Testu liburuak	6.000 €
Ekarpenak	70.000 €	Inbertsioa	5.000 €
Beste batzuk	3.000 €	Beste batzuk	89.000 €
Erasmus +	25.000 €	Erasmus +	25.000 €
	323.500 €		323.500 €

Abanto-Zierbena, 2019ko urriaren 21a